

Baleike

Zumaiko herri aldizkaria. 40. zenb. 1997ko azaroa. 100 pzta.



Zumaiko Kirol Portua S.A.k prestatutako fotomuntaia

Kirol Portuaren lanak hastear

Elkarriketa

- Laxaro eta Iñaki, herri langile prestuak

Izerdi patsetan

- I. Zakila Birako sailkapenak

Musikaz blai

- A.G.E., 13 urte musikan murgilduta




Objezioaren bidea Zumaiko Gurutze Gorrian

Zumaiako Fototekak utzitako argazkia



Gaur egun Astilleroetatik Itsas kiroldegira doan zubia ikus dezakezue. Baina argazki honetan ez astillerorik ezta itsaskiroldegirik ere ez da ageri. Hori bai, burnizko zubia orain baino askoz hobeto zegoela begibistakoa da, eta pasian dabilen pertsona horren arabera, jendea ibiltzen zen hortik. Paisaiak behintzat ez dauka oraingoaren antzik, baina hor dagoen hondatutako untxiak astillero baten beharra zegoela iragartzen zuen jadanik garai haietan.



kutxa fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKO UDALAK
lagundutako aldizkaria



BALEIKE HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIKO
GAZTE
BATZORDEA**

Iantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,
Natur Taldea, Josu Aizpurua,

Dani Carballo,

Zuzpeltu kultur taldea,

Asier eta Fran,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Amaia Benito, Jon

Manzisor, Josu eta Arantxa,

Igone eta Nerea, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga-Oñati)

tirada: **1.000 ale**

Lege gordailua: **SS-405/94**

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Baleike:
Euskara Elkarte
baten beharra... 20 or.



Lehiaketak:
Jon Maia Txapelketa
Nagusiko
finalaurrekoetara... 30 or.

Barne harrak karraskatzen ote?

Pertsona zein talde batek ekintzaren bat aurrera eramaten duenean, iharduera horri egoki deritzolako izan ohi da. Hau horrela izaki, nork bere burua goraipatzea zentzugabea dela iruditzen zait, gainontzekoak baitira lan hau baloratu behar dutenak. Bestela, inoiz ikusi al duzue bertso bat abestu ostean entzuleak ezezik bertsolaria ere txaloka? Nik uste amona aski dela bere iloba izarren pare jartzeko, haurrak berak astronautakeriarik egin behar izan gabe.



**Eneko
Dorronsoro**

Baina zoritxarrez badu umezurtzik, eta itxuraz egoera latz honetan aurkitzen da Euskal Telebista ere, eta nork laudaturik ezean, NASArene espaziumtzirik indartsuena hartuta, troposfera, estratosfera eta inon diren osfera guztiak gaindituz, Jainkoaren pare ezik, berau dagoen baino gorago iritsiko denaren ustetan aurreratu da. Musika talde ezagun batek zioen bezala, "we are the champions", gu azkarrenak, gu onenak.

Izan ere, jakingo duzue Euskal Telebistak eskaintzen dituen informatiboek ez dutela parerik ezta? Bai, telebista publiko bat izaki, alegia, gu guztion diruz eraikia, albisteak beren osotasunean eskaintzen dituzte, hori delarik komunikabide honen apustu nagusienetako bat. Ah, eta ongi informatuta ez dagoena nahi ez duelako da.

Inork ba al daki mamu-harraparien telefonoa?



PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia....	86 02 48
Alkoholikoen senideak....	47 54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44

“Amatxo, ikastolara noa!”

Seme-alaba askotxok erabiltzen eta erabilen duten espresioa dugu hau. Inertziak eta urte askotako ohiturak bultzatuta ikastola hitza erabiltzen jarraitzen dugu hainbat guraso eta ikasle ohiok ere. Eta hau guztia ez da harritzekoa Arrangoleta eraikinaren ate ondoan “Zumea Ikastola” dioen kartelak han jarraitzen baitu eta Kilometroak nahiz antzeko Ikastolen festak direnean “Zumaia Ikastola” izenpetutako kartelak oraindik agertzen baitzaizkigu herrian zehar.

Baina txakurrari ez diogu katu deitzen, txakur baizik, hala delako. Bide beretik jarraiki, ez diezaiozun Zumaia Herri Eskolari Ikastola deitu Zumaia Herri Eskola denean. Ez dezagun geure burua engaina eta behingoz onar dezagun garai bateko Zumea Ikastola historia bilakatu dela, askori min ematen digun arren.

Egoitz Lizaso

Ikastolako ikasle ohia
 NAN: 72.472.787

Santixoko zulaketen inguruan

Ingurugiroaren Gaineke Eraginaren Deklarazioak dioenez, dragatuen bitartez erretiratu beharreko materialak ezagutarazi egin behar dira, kutsagarriak eta arriskutsuak diren konprobatzeko.

GUTUNAK



Azterketa hau gainera, itxura denez, LABEIN enpresak egingo luke eta arriskutsuak balira –kutsagarriak direla argi dago– kamioietan erretiratu egin beharko lirake eta beren arrisku maila hori murrizteko tratamendu berezi bat eman. Hau da behintzat Hondakin Kutsagarri eta Arriskutsuen Oinarrizko Legediak dioena.



Kutsagarriak direla argi dago, izan ere orain arte egindako azterketetan hainbat metal pisutsu aurkitu dira (txatarra ez). Hauen artean aipagarriak dira kadmioa, beruna eta galbanizazio prozesuetatik eratorritako beste zenbait metal ere.

Honegatik betegarri bezala erabiltzea ez zen posible izango, jabetza publikokoa den zonalde

batean ezin baitira jaurti, eta Santixoko padurak baldintza hau betetzen du.

Gainera, eskabadorak juxtu zuloak egiten aritu ziren tokia, hondakin kopuru gehien erakusten duen zonaldea da, eta hauekin nahi dituzte betetze edo rellenoak egin portuan, dike ezberdinak eraikitzeko.

Materialeen mugimendu maniobra hauek oso arriskutsuak dira eta beti defendatu izan dugu, hondakinak hobeto daudela dauden tokian, sedimentuen artean geldi-geldirik, inork mugitu gabe.


Horregatik diogu paduran egindako dragatu horiek hastean, lan horiek aurrera daramatzan enpresa hondakin kutsagarrien ekoizle bilakatzen da. Hori dela medio era honetako dragatuak egiteko, baimen berezia behar da. Hau ez badago iragarrita, proiektuaren kostuak gehitu daitezke, eta nola ez, gastuak gizabanako bakoitzaren poltsikoan igarriko lirake.

Bukatzeko aipatu, alkatea ez dela nor paduran inolako lanik baimentzeko, jabetza publikoko zona horretan egiten diren mugimendu orok Portu Zuzendaritzaren, Kosta Zerbitzuaren eta Ingurugiro Sailaren baimena eskatzen baititu. Oraingoaren ere Peña jaunak bere kontura jokatu duela dirudi, baina jadanik ez gaitu harritzen –ohituta gaude–.

ZUMAIA BIZIRIK

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
 Tlf: 861407



ROSI

GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
 Tlf. 861670



SCHOOL OF ENGLISH
 Ingeleseko klaseak maila guztietan
 Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373



PILI ETXABE

Oporren garrantziaz

Opor hitzak niretzat eguneroko bizitzako gora-beherak alde batera uzteko aukera paregabea suposatzen du. Bai, eguneroko bizitzarena diot, izan ere lanaz gain gizarte *trakets* honetan bizi beharrak berak ere nahiko lan ematen baitit, gehiegi batzutan.

Opor hitza, bestalde, askatasun pertsonalarekin erlazionatu ohi dut, beti ere norberaren askatasunaren parametrotan mugituz, besteena errespetatuz.

Halako egunetan kanpora ateratzeko joera dut, inguratzen nauena bertan behar utziz soilik lor baitezaket benetan deskonektatzea. Ez, ez naiz ibiltzen errealitatetik ihes egin nahirik (ustez behintzat), baino tarteka *Kit-Kat* bat egite horrek ondoren berriz ere egunerokotasunean jarraitzeko bultzada ematen dit.

Etxean bezala inon ez dela egoten esaten duenik baden arren, ez naiz ni horietakoa (oraingoz), opor garaian behintzat.

Indarberritzeko barneko eskemak apurtuko dizkizun bizipenak bilatzea bezalakorik ez dago nire ustez. Zein eskema apurtzen diren? Ahuldutako horiek, askotan oztopogarri besterik ez zaizkigun horiek, gauzak diren bezala ikusten uzten ez dizkiguten horiek, gure neuronei lapa-zorrien modura pegatzen zaizkien horiek.

Ingurunez aldatze hutsak denboraren orratzei ere eragiten diela dirudi, baina horretarako norberak bere buruari komenigarriena zaion bizi-erritmoa markatzeko duen aukeraz baliatzea ia ezinbesteko baldintza iruditzen zait.

Agian dagoeneko irakurleren bat ariko da pentsatzen etxetik irteteak diru gastu bat suposatzen duela; bai, nola ez, baina askotan herrian bertan gelditzeak ere gastua suposatzen du, tonto-tonto joaten baitzaigu dirua. Ez gaitezen engaina: oporretan egotearen aitzakian beti ere gastu extra gehiago egiten dira. Kalkuluak behar bezala egin eta neurriko irteera bat hautatzea da kontua. Azken finean leku pribilejiatu batean bizi garela uste dut, urrunegi joan gabe paraje zoragarriak baititugu Euskal Herrian eta hurbileko lur atzerritarretan ere.

Noiz oporrak? Auskalo!

Txapelketa
Nagusia



JON MAIA

Kartzelako gaia: Lagun bati HIESA (SIDA) daukazula esan zenion. Orain lagun horrek ez zaitu berdin begiratzen:

**Hor zaude lagun /
begi zorrotzez
neri begira jarduna
zure jarrerak /
ez dit sortuko
nere barrenean trauma
izkutukorik /
ez daukat ezer
denentzat da ezaguna
zu zerala ta /
ez naiz jarriko
hemen kopeta iluna
Nik berdin-berdin /
jarraituko det
zuk galdu dezu laguna**



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412



SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - IMPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
78 postalutxa Faxa: 148124
20740 IRAETA-ZESTOA

BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Kirol Portuko obrak abenduan hasiko dira

Sato-Obrascon enpresa taldeak burutuko ditu lanak

Badirudi azkenean Kirol Portuaren proiektua martxan jarriko dela. Honen inguruan hainbat gora behera izan ondoren, datorren hilabetean lehen obrei ekiteko asmoa dago. 2.310 milioi pezeta kostatuko den proiektu hau 2003. urterako gauzatzea espero da.



Finantziazioan diru publikoa eta pribatua biak erabiliko dira.

Kirol Portuko Kontseiluaren erabakiz, Sato-Obrascon estatuko enpresa taldea arduratuko da kirol portuaren eraikuntzaz. Gauzak pentsatzen duten bezala joaten badira, datorren hilabetean hasi eta bost urteren buruan bukatuta egongo da; hau da, 2003. urterako erabat bukatatuta egotea espero da.

Rikardo Peña Zumaiaiko Alkateak adierazi digun bezela, «kezka handia genuen proiektua

aurrera eramateko aurkeztuko ziren enpresa kopuruen inguruan», izan ere oinarriak nahiko zorrotzak eta esijenteak ziren eta zalantzak zeuden ia norbait aurkeztuko zen edo ez jakiteko.

Azkenean, lau enpresa sartu ziren lehiaketan eta baldintza ekonomikoak eta beste kontzeptu batzuk kontuan hartuta, Sato-Obrasconi eman zaio lanak egiteko

ardura. Esplotazioa edo ustiapena berriz Mediterraneoko eta Elkano Marinek egingo dute.

Aurrekontu osoa 2.310 milioi pezetakoa da eta honen finantziazioa era mistoan emango da, hots, diru publikoa eta pribatua biak erabiliko dira. Formula hau era honetako proiektu handietan behintzat ohikoa bilakatu daiteke etorkizunean.

Arkupe
*Okindegia
eta gosariak*
Kale nagusia, 2

ERTZ
INFORMATIKA

**INTERNET
IKASTAROA**

**OFERTA:
PENTIUM 166
CD-ROM
Koloretako inprim.**

Mendaro Marínela 3,

TEL. Fax. 14 33 95

Hiru fase

Kirol portuaren eraikitze prozesua hiru fasetan dago banatua:

1) Lehenengo fasea datorren hilabeteen hasiko da eta azpiegitura lanak izango dira gehienbat: moilak, pasarelak, eskoilerak, terrenoa prestatzea da azken batean egin beharrekoa eta honekin batera, urbanizazio lanak ere egingo dira.

Lehen fase hau da oinarritzakoa eta dirutza handiena ere bertan gastatuko da: 1.478 milioi pezeta. Guztia Eusko Jaurlaritzak jarriko du.

Obrak abenduan hasiz gero, 14 hilabeteren buruan fase honi amaiera emango zaio.

2) Bigarren fase batean, kapitania eta tailer teknikoak, gruak eta pantalanen % 40a gauzatuko dira, hau da, atrakalekuen % 40a. Fase hau 7 hilabetetan burutuko da.

3) Hirugarren eta azken fase batean berriz, pantalanen gainontzeko % 60a eta lokal komertzialak egingo dira. Guztira, 3.000 metro karratu baino gehiago azalera hartuko du, eta denbora tarte luzeena honek eskatzen du, 44 hilabete hain zuzen ere.

Azken bi fase hauek enpresa pribatuek finantziatuko dute. Azpimarratu, motora edo antzeko untziak dituzten zumaierrek % 50eko deskontua izango dutela atrakaleku baten jabe egiterako orduan.

Rikardo Peñak azaldu duenez,



Astilleroak eta Santixoko hondartzaren artean kokatuko da kirol portua.

“modu honetan amaiera ematen zaio orain dela 6 urte hasi zen prozesu luze bati. Gora beheratsua eta nahasia suertatu den prozedura bati, hain zuzen”.

Oso gustora agertzen da

azkenean proiektua errealitate bihurtuko delako eta prozedura aldetik, eta kirol portuaren inguruan emandako urrats guztiak legedia errespetatu dituela momentu bakoitzean argi utzi nahi izan du.

Puntuz puntu

-Obrak abenduan hasi eta 2003. urtean amaituko dira

-Guztira, 2.310 milioi pezetako aurrekontua du proiektuak

-Finantziazioa mistoa izango da, diru publikoa eta pribatua biak erabiliko dira.

-Hiru fasetan burutuko dira eraikitze lanak

-Zumaia Bizirik-ek obrak paralizatzea eskatuko du.



Z U M A I A



AUTO -ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Bere ustez, bi eratako ondorio onuragarriak ekarriko ditu kirol portuak: «alde batetik etekin zuzenak emango ditu, izan ere enpresa adjudikatzailerak ordaindu beharreko kanonaren bitartez, 600 milioi pezeta baino gehiago jasoko baititu herriak. Bestetik zeharka, 3. sektorearen garapena ekarriko du».

Modu honetan, beste herriekiko diferentziagarria egingo duen azpiegitura bat izango duela Zumaia gaineratu du alkateak.

Zumaia Bizirik Taldeak berriz, proiektu honen Egitasmo Bereziaren aurka errekurtsio bat aurkeztekotan dago Justizi Epaitegi Gorenaren aurrean; irregularitateak ikusten dituzte proiektu ofizialean, besteak beste ez baitu onarpen ofizialik.

Bestalde, kritikatzan dute

Kirol Portua 2003. urterako amaitua egotea espero da

Egitasmo Orokorrak ez duela barneratzen barra eta ez duela behin betiko onarpenik. Honez gain, Kostaseko legeak eskatzen duen lur eta itsas jabetza publikoaren mugatze definitiborik ez dago.

Gainera, proiektuaren Egitasmo Berezia gazteleraz idatzia dago bakarrik eta ez euskeraz, normatibari dagokion zatia behintzat. Horregatik egitasmo hau baliogabe deklaratzeko eskatzen dute.

Argudio guzti hauengatik, Kirol Portuko eraikitze lanak hasten badira behintzat, paralizatzea eskatuko dute.

Dartsenak 4,7 hektarea izango ditu eta guztira, 512 untzientzako lekua izango du. Asistentzia teknikoa berriz, astilleroen alboan kokatuko da.

Ekipamenduari dagokionez, hiru espigoi edo kai-mutur izango ditu: lehena, 120 metrokoa, astilleroekiko perpendikularra izango da. Bigarrena aurreko-arekiko paraleloa da eta N-634 errepidearen zati bat hartuko du. 250 metro ditu eta ahalik eta ur kantitate gehien sar dadin diseinatua dago.

Azken espigoi edo kai-muturrak, lehenengoaren puntatik irten eta 161 metroko arku zirkular bat marraztuko du. ■

Datorren urterako ordenantzak aprobatu dira

Urriaren 30ean egindako plenoan 1998. urteari dagozkion ordenantzak onartu ziren. Dakizuenek, ordenantzak, Udalak kobratzen dituen zerga eta tasak dira, herriko instalazio, terrenu, denda edo beste zerbitzu ezarri edo erabiltzeagatik.

Datorren urterako, zabor zerbitzuen igoera nabarmena izango da eta beste zerga edota tasak mantendu edo Kontsumorako Prezio Indizearen arabera igoko dira soilik.

Bestalde, moilara inguratzen diren untziei bertan egon ahal izateagatik zerga bat ezartzea aztertzen ari da Udala, Euskal Herriko beste portuetan horixe egin ohi baita.



ZALLA
Taberna - Erreteria
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki 
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatur

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA


Udal kiroldegia itxura erabat ezberdina hartzen ari da, igerilekua dela eta egiten ari diren lanak medio. Atzealdeko horma bota dute eta barruko pista toldo handi batek bakarrik babesten du. Ikusiko dugu apurtu gabe mantentzen den.



Odieta Pilotalekuak dagoeneko arduradun berriak ditu. Ainhoa Sanchez Uzkudun Tabernako jabea izango da, bere senitartekoekin batera, frontoiko gora-behera guztiak eramango dituen. Egunotan obretan dabilta tabernan eta gauzak nahi duten bezala joanez gero, hil honen hasieran irekitzea espero dute.



A ze sustoa hartu zuten urriaren erdialdean Algorriko itsasadarra bixitatzen ari ziren 70 haur gasteiztarrek. Zarauzko Itsas Taldeak antolatutako txango bat zela eta, naturgune interesgarri hori ikusten ari zirela, haitz pila bat erori ziren beraiek zeuden lekutik oso hurbil. Ez zen inor zauritu baina sustoa ikaragarria izan zen.



IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Maiaur
jolastokia

Laxaro eta Iñaki, herrikoak eta langileak. Honaino ezer berezirik ez, ezta? Baina Zumaian geratzen diren lau Herri Langileetarikoa bi direla azalduz gero, gauzak aldatu egiten dira. 1988tik daramate lan

Laxaro Egaña eta Iñaki Aizpurua

honetan, eta bederatzi urte hauetan zehar gauza asko ikusi eta entzundakoak dira, nahiz eta oraindik gazteak izan. Ogibide berezi honen berezitasunetaz hitz egin dugu beraiekin.

«Herri langileak denetik egin behar du»

Batek igeltseroa edo taxista dela esaten badigu, argi daukagu zeintzuk diren bere betebeharrak. Baina zein da herri langile baten lana? Noraino iritsi daiteke eta noraino ez? Iñakik eta Laxarok horrela azaldu digute.

«Gaur egun denetik egiten dugu: belarra moztu, jardinak konpondu, kartelak kendu, bonbilak aldatu, zakarrontziak jarri, gauzak alde batetik bestera mugitu... sagardo egunerako izotza ekarri, egiten dakigun edozer gauza». Lan berezi edo arrarorik egitea tokatu zaien galdetzean, erantzuna garbi dute. «Guretzat ez dago lan berezirik. Uholdeak zirela eta Elgoibarren laguntza behar izan zutenean han izan ginen, baina berdin egiten dugu lan gaixoentzako ohe bereziak batetik bestera eraman behar baditugu. Hori bai, lan batzuk ez dira oso atseginak izaten. Lehen kanteriletan sartu behar izaten genuen. Pentsa ezazu zer aurki daiteken Erribera kalean, 3-4 metro azpira sartuta. Kondoia, arratoiak, konpresak, gogorturiko jaboia...»

Imajina ditzakegun funtzio guzti horiek betetzeko ez dute



Edozer gauza egiteko prest egoten dira Laxaro eta Iñaki.

beraiek nahi adina formazio jaso. Iñakik ez behintzat. «Lehen gure arduraduna zen Aitor saiatu zen gutako bakoitza gai batean espezializatzen. Laxarok lora-zaintzako hiru ikastaro egin ditu, baina niri ez zitzaidan eman inolako formaziorik».

Plantilaren formazioan lan gehiago egin beharko litzakeela argi dute biek. Azpikontratazioen politika ez dute begi onez ikusten, eta teoria propioa dute arazo honen inguruan.

«Egokiena lantalde propioa izatea litzateke, ondo espezializatua. Baina horren orde, azpikontratazioarako joera hartu du Udalak. Horrekin lortzen dutena da arazoak eta komentario txarrak gainetik kentzea. Herriaren aurrean ardura hori kendu nahi izan dute. Gainera esaten dute merkeagoa dela azpikontratazioa». Gauzak ez dituzte ondoegi ikusten, bederatzi urte hauetan lankide kopurua jaitsiz joan baita. Horrela azaltzen digu Laxarok. «Duela gutxi galdutako



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA



DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK



SUKALDEKO
ALTZARIAK

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategi, 10 behe
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

arduradunaren lanpostua kontuan harturik, lau dira urte hauetan galtzen ikusi ditugun lanpostuak. Azpikontratazioekin gure funtzioak gutxituz joan dira. Lehendabizi kale garbiketa kendu zuten, gero zuhaitzen adar mozketak, igeltserotza eta elektrizitate lanak eta duela gutxi ur zerbitzuak. Baliteke hemendik denbora batera beste zerbitzu batzuk azpikontratatzeko eta gu lanik gabe geratzeko». Lanpostu finkoa dutela argitu arren, horrek ez die ziurtasun osoa ematen, legea edozein unean alda daiteke eta. «Zurrunmurrak batzuk entzun dira. Zerbait asmatu nahi dute lanpostu finkoa dutenak kanporatu ahal izateko, funtzionariok omen dugun pagotxarekin amaitzeko».

Funtzionarien pagotxarena aurreiritzi bat baino ez omen da. Inakiren ustez. «Funtzionaria ere bada bere lana kalean egiten duena, neguan hotza eta udaran beroa jasanez, nahiz eta batzuk esan tabernetara sartzen garela txorixo muturrak jatera. Gu lan honetan sartu ginenean langabezi asko zegoen Zumaian eta 40 lagun inguru aurkeztu ginen azterketara. Ez zen horrenbesteko txoltoa izango. Erratza hartu beharra zegoen orduan, eta hori azken aukera bezala ikusten du jendeak».

Herri langile izatearen beste berezitasun bat lana herritarren begien aurrean egin behar izana izaten da. Herritar asko, gainera, aginduak emateko eskubide osoa dutela uste dute. «Ez da batere



Udalaren kontratazio politika ez zaie zuzena iruditzen.

atsegina jendearen aurrean lan egitea. Guri gustatuko litzaiguke Zumaiake beste langileak euren tailerretan ikustea nola egiten duten lan, geure kontura marmarrean aritu ondoren». Laxarok San Telmo batzutan gertaturikoa gogoratzen du. «Behin San Telmo egunean, prozesioa pasa baino lehen kaleak garbitzera aterata ginen, eta emakume bat marruka hasi zen balkoitik kaleak garbi ikustean: miraria!!, miraria!!, eta guk zera erantzun genion, miraria ez andrea, geu jaiki gara goizeko bostetan kaleak garbitzera!». «Gehienetan keinuak izaten dira ikusten ditugunak, ez dira guregana zuzenean etortzen. Adibidez, lehen bostetan ateratzen

«Lantalde propioa espezializatu beharrean, azpikontratazioak egitea erabaki du Udalak»

ginenean eguneroko kontua izaten zen Pulpo aurretik pasatzean bertan eserita zeuden guztiak erlojuari begiratzea, ia bostak ziren ikusteko. Dena den, mundu guztiak jakin dezala fitxeroa daukagula eta edonork ikus ditzakeela fitxak udaletxean».

Guztia ez da, ordea, txarra. Bada euren lana eskertzen duenik, eta horiek gogoratzean haserre guztiak ahaztu egiten dira. ■

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



KALARI
TABERNA

- Eguneroko bazkaria
- Pintxo eta bokatak
- Koadrilentzako menu bereziak
- Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea 16

Tel. 86 25 17



Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tel. 860415



JOSE
IGNACIO
SANZ

Txorrada bat. Europako plana sartu nahi digute. 9tan kanpaia jo eta denak etxera. Alemanian, Belgikan eta holakotan gertatzen den bezala.



ARANTXA
BIDASORO

Uste det tope bat egon beharko litzatekela. 4-5ak artean ondo dagoela pentsatzen det.



PIL

Ez zait ondo iruditzen zeren eta beraientzat putada bat da eta guretzat ere bai. Tabernak itxitzen dituztenian bakallaua besterik ez dago. Oso txarra.

Zer iruditzen zaizu tabernak ixteko jarri duten lege berria?



IÑAKI
LOPETEGI

Ondo. Ni zaharra naiz eta lo egiteko arazorik ez det izango horrela.



ANGELA
BALENCIAGA

Ondo. Hartaka nik lo egingo detelako!



LURDES
SARASKETA

Jendiak nahi badu berandu jutia etxea jungo da. Neretzat ez da asko aldatuko. Nik hala ere nahio det beranduago ixitia.




JUANJO
HOLGADO

Gaizki. 2,30tan itxitzen badituzte tabernak, zer egin behar dezu ordu horretan? Aste guztia astebukaeraren zai egoten gara lanean gaudelako. Azkenean denok diskoteketan bukatuko dugu.



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertxe

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707

Objetoreen gurutzea

Azken bost urtetaon objetoreak ditugu Gurute Gorriko inkilinoak. Iraganean gelditu dira garai bateko soldaduak, soldaduska bertan egiten zutenak. Orain, objetoreak daudela, beren gaitasuna kuestionatu izan ohi dute herritarrek. Gurutze gorria hein handi batean beltza bilakatzen zaie sarritan. Honi buruz eta beste hainbat kontuen inguruan jardun gara beraiekin solasean.

1992. urtean objetoreak Gurutze Gorrian sartu zirenetik, herritar askoren ahotan entzun izan dugu beraiekiko makina bat komentario: ez dutela beren lana behar bezala betetzen, ez dutela gaitasunik egin behar hori ondo betetzeko, katxondeo asko ibiltzen dutela, etab.

Puntu honi aurrerago helduko diogu, baina lehenago, beren laneko beste hainbat kontuen inguruan aritu nahi izan dugu Gurutze Gorriko objetore batzuekin.

Beraien arteko harremana orokorrean behintzat ona dela azaldu digute, «beti dago pasotaren bat baina normalean ez daukagu arazorik; alderantziz, lagun gehiago egiten dira».

Objetoreak 4 pertsonaz osatutako talde ezberdinetan daude banatuta, «eta tokatu zaizun taldera ohitzen zeranean, oso zaila egiten da gero hortik irtetea, badakizulako bakoitzak nola erreakzionatuko duen, denborarekin ezagutu egiten dezulako bakoitza nolakoa den». Nolabait, dependentzia bat sortzen da taldearekiko.

Guardiako orduak luzeak egiten direla aitortu digute, batik-bat asteburuetan, sarri 24 ordu segidan sartu behar baitituzte. «Salidarik ez



Gustoz ez bada ere, salidaren bat egiteko zain izaten dira objetoreak

daukagunean, dextente aspertzen gera guardian. Kartetan jokatu, partxisean, txorakeri batzuk esan, postu aurretik pasatzen den ganaua ikusi, hortan pasatzen degu denbora. Ah, eta telebista ikusten».

Salidaren zain

Gustokoa izan ez arren, askotan salidaren baten zain izaten dira, monotonia apurtzeko. Maiz, ez dute jakiten zeren aurrean aurkituko diren eta tentsioa, handia izaten da beraien artean. «Gauetz, guardian bazaude, lo hartzea kostatu egiten da; beti pendiente zaude norbaitek tinbrea jo zain, zerbait gertatuko dena beldurrez».

Objetoreen betebeharra salidetan zein den argitu nahi izan

dute. Lehendabizi zauritua goitik behera errekonozitu, SOS Deiak-i zaurituaren egoeraz informatzen zaio eta ondoren aktuatzen dute objetoreek. Ikusiz gero zauriak larriak ez direla, hospitalera eramaten dute eta larria bada aldez, anbulantzia medikalizatu baten zain geratzen dira edo mediku bat etorri zain.

«Guardietako orduak oso luzeak egiten zaizkigu»

Hori bai, hil ala biziko egoeran badago zauritua, objetoreek askatasun osoa dute behar duten guztia egiteko, beste norbait etorri arte zain egon gabe. Honetaz gain,

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etkezaretza, 19 20750 ZUMATA
Telefonoa: 862342

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375

pertsona bat nahiz eta hilik egon eta hau jakin Gurutze Gorrikoea jakinaren gainean egon, sendagilea etorri arte erreanimazio masajeak ematen jarraitu behar dute.

Beren ustez, «Gurutze Gorrian izan diren edo dauden objetore guztiak ez daude kapazitatuta salida batera joateko. Pertsona baten izaerak asko kontatzen du». Hala ere, pertsona hori ez bada gai irteteko, postuko irratian geratzen da koordinazio lanak burutzeko, «horregatik ez da arazorik izaten. Okerragoa litzateke salida batera irten eta pertsona horrek ez erreakzionatzea, orduan bai gaizki egongo ginatekeela».

«Gurutze Gorriko objetore guztiak ez daude kapazitatuta salidetara irteteko»

Zentzu honetan, ikastaro labur bat jasotzen dute egoera bakoitzean nola jokatu behar duten jakiteko, baina beraiek argi dute salidetan gehien ikasten dena dela gehien eta ez oinarritzko ikastaro teoriko horretan.

Salidetan jendeak beraiekiko duten jokaera kritikatzeko dute. «Beti dago espabilituren bat dana dakiela uste duena; barrabilak ikutzera etortzen dira gainera. Egoera horretan, bati baino gehiagori zartako eder bat emateko gogoia etortzen zaizu».

Era berean ordea, laguntzeko prest dagoen jendea ere badagoela

gaineratu dute. Normalean hala ere, inguruko jendeari kasurik ez diote egin behar, ez bada mediku edo erizainen bat behintzat; kasu honetan ere, identifikatu beharra du.

Ertzaintzarekin kritiko

Ez da hau, ordea, egiten duten kritika bakarra. Istripuetan Ertzaintzak burutzen duen lan eskasa salatzen dute. «Ez dira kapaz gauza minimo batzuk ondo egiteko, ez dute jarrera onik azaltzen. Gainera, ez dakigu nola, baina beti anbulantziak Ertzaintza baino lehenago iristen dira istripua gertatzen den lekura, kontuan hartuta gainera bai. Gurutze Gorriari eta bai Ertzaintzari une berean ematen zaiela istripuaren berri. Suposatzen da beraien kotxeak azkarragoak direla eta askotan lehenago iritsi beharko liratekeela. Honekin benetan, aluzinatuta geratzen gera».

Bestalde, azpimarratu nahi dute Gurutze Gorrian seriotasun handia dagoela eta katxondeo gutxi. «Jendeak kontzeptu okerra dauka gurekiko».

Behin baino gehiagotan entzun izan omen diote jendeari esaten mozkortuta egoten direla eta antzekoak. «Hau ez da egia inondik inora, oso jende responsablea gaude Gurutze Gorrian; badakigu zertarako gauden». Jarraitzen dute esanez, «jendeak ulertu beharra du salidarik eta ez dagoenean gu ahal bezain ondo pasatzen saiatzen gela. Postu kanpoan ikusten gaituzte parrez, katxondeatzen, baina hau normala da ez aspertzeko. Baina gero lan egin behar degunean, lan egiten degu behar bezela. Gurutze Gorrian dagoen objetore bat kalean astapotro bat izateak ez du esanahi postuan gero horrelakoa denik. Txipa aldatzen da».



Ikusten den bezala, lo egiteko ere tartea badute Gurutze Gorrian.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201



Javier Udabe, Gurutze Gorriko arduraduna

«Litekeena da lehen Gurutze Gorria serioagoa izatea»

-Lehen soldaduak, orain objetoreak. Asko aldatu azken urteotan Gurutze Gorria, ezta?

Lehen Gurutze Gorria egin behar zuen bazekien hilabete edo bi kuartelean pasa behar zituela, gero hona etorri eta soldaduska Gurutze Gorrian egiten zuten. Lehen Defentsa Ministeritzaren esku zegoen; orain ordea, objetoreak direla eta, Justizia Ministeritzaren barne dago. Prestazioa herrian bertan egin daiteke, kuartelera joan gabe.

-Eskaintzen diren zerbitzuak ere ezberdinak al dira?

Bai. Lehen Gurutze Gorriak beste zerbitzu batzuk eskatzen zituen. Orain herrian beste eskaera batzuk daude eta honi egokituz aldatu da. Lehen adibidez, erreskate lanetan aritzen ginen; orain berriz suhiltzaileak joaten dira eta gu ez. San Juan egoitzan ere laguntzen degu, lehen egiten ez zen bezela.

-Noiz hasi ziren sartzen objetoreak Gurutze Gorrian?

92an jarri zen martxan Zumaian objetoreen kontua. Gurutze Gorriak estatu mailan lortutako akordioaren fruitua izan zen. Hasieran akoplamendu arazoak izan genituen, ez genekielako ondo nola zen objetoreen kontu guzti hau.

-Ze iraupen du objetoreek Gurutze Gorrian egin beharreko prestazioak?

1990ean soldaduska Gurutze



Katxondeorik ez dagoela uste du Udabek.

Gorrian 16 hilabetekoa zen. Gaur egun prestazioa 13 hilabetekoa da, hilabete bateko oporrak eta astean 35 eta 40 ordu arteko prestazioa egin beharra dute.

-Soldaduak zeudenean Gurutze Gorrian askoz serioagoa zela diote askok.

Izan daiteke lehen seriotasun gehiago egotea. Soldaduak zeuden garaian, arrestoak ematen ziren, militarrek eta pasatzen ziren kontrolak egitera. Orain objetoreek beren araudi bat dute eta gainera, Gurutze Gorriko barne araudi bat ere errespetatu beharra dute.

Honbre, guk ez daukagu militarrek zuten funtzionamendua eta jakina, gu ezin gera beti jendearen gainean ibili. Gauzak gaizki egiten direnean saiatzen gera

zuzentzen, baina besterik gabe.

-Arazorik izaten al dezue objetoreekin?

Orokorrean ondo eramaten gera, askoz giro hobeagoa dago Zumaian beste leku batzuekin konparatuta.

Hemen jendeak garbi dauka objetore egiten bada zer daukan eta ez duenak egin nahi, intsumiso egin dadila.

-Zer falta zaio Zumaiaiko Gurutze Gorriko postuari?

Mediku bat falta da; haxe da dudarik gabe dagoen hutsunerik handiena. Bestela, material eta pertsonal aldetik nahiko gustora gaude. Dena den, egokiena etorkizunean profesionalizaziorako pausoa ematea ezinbestekoa ikusten det.

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa


Tel-Faxa: 148306-148065

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaia plaza z/g Tlf: 143278







BERNARD, JOHANNESEN
 ANAIA, HISTORIO HONETAN
 EZ DU PARTE HARTZEN,
 BAINA TIRA, BERE NAHIA
 KOMIKIAN AGERTZEA ZENET
 APROPOSU IRUDITU ZAIGU
 NIPAMEN BAT EGITEA.

- <http://www.bernard.com>


PIANO BAT,
 BUTANO BAT
 ETA JOHANNES



III. Baleike komiki lehiaketa



-JOHANES: ZE, SAN INABOTARA JON BIAR?
 -BUTANO: NI PELAUTA NITXIOU
 -PIANO: ETA NI? BUTANO?
 -BUTANO: ZO ÈRE PELAUTA NITXIOU.
 -PIANO: DO.
 -BUTANO: ZE JOHANES, GAUR DEBUTANO?
 -JOHANES: BAI, KLOB HONETAN BAI.



Zumaiar onena: Iñigo Garcia Agirrezabalaga

Lur kutsatuak, lur gaixoak

Udal Elkarteak kutsaturik egon daitezkeen lurren inbentarioa egiten ari da

Kutsaduraz hitz egiten entzuten dugunean, ibaietako kutsadura edota ozono geruzako zuloa datozkigu burura, baina gutxitan pentsatzen dugu lurra ere kutsatuta egon daitekeela, eta horrek arazo larriak sortitzakeela. Arrisku honi aurre egiteko, Urola Kosta Udal Elkarteak gure eskualdean kutsaturik egon daitezkeen lurren inbentarioa egiten ari da, Ingurugiro Eskola-Tailerreko lantalde baten eskutik.

Euskal Herrian tradizio handia izan du betidanik industri iharduerak. Diru etekin handiak sortu ditu, baina baita hondakin arriskutsu ugari ere. Hondakin hauek duela gutxira arte —oraindik ere bai zenbait kasutan— inolako kontrolik gabe botatzen ziren ibaietara, airera edo edozein bide bazterrera. Herriak eta industriak elkarren ondoan bizi izan dira betidanik gure lurraldean, lur eskasia baitugu. Egoera honetan, gizakion osasuna arriskuan egoteaz gain, etorkizuneko iharduerak ere arrisku bizian daude. Hau da, lur bat hain ezaguna bihurtu den lindanez kutsaturik badago, arriskutsua izan daiteke bertan etxebizitzak eraikitzea, edota beste enpresa bat.



Zer egin arazo honen aurrean?

Arazoa larria dela ikusita, administrazio ezberdinak lanean jarri dira, eta Urola Kosta Udal Elkarteak akordio bat sinatu du IHOBerekin (Ingurugiroaren Kudeaketarako Elkarte Publikoarekin), gure eskualdeko bost herrietan —Aia, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia— egon daitezkeen lur kutsatuen inbentarioa egiteko. Lan hau aurrera eramaten ari da dagoeneko Ingurugiro Eskola-Tailerreko lantalde bat, eta abendurako amaitua izango dute.

Zertarako inbentarioa?

Inbentario honekin, udalek oso informazio baliagarria izango dute Hiri Plangintza garatzerako orduan. Garrantzi handikoa izan daiteke jakitea lur bat kutsatua egon daitekeena edo ez.

Bestalde, IHOBek azterketa sakonagoak egiteko abiapuntu bat izango du inbentario honekin, eta kasu larrienei irtenbidea emango zaie. Beste helburu bat, etorkizunean lur gehiago ez kutsatzeko neurriak hartzea izango da. Lurren kutsaduraren aurkako lehen pausoa da. ■



balezulo
inportaturiko erropa
eta artisautza
Basadi 3 Zumaia

TXOKOA
T
B
E
R
N
A



Artadi
Auzoa
86 21 89



AIZPURUA
L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMALAK

pornoa eta eszitazioa

Ez da inungo Nobel saridun bat izan behar filme pornoak jendea "berotzeko" eginak daudela konturatzeko. Irudi hauek masturbatzen ari den pertsona baten imajinarioaren laguntzaile izan daitezke, edo bikote baten bizitzan berritasun batzuk sor ditzake. Hala ere, irudiez gain, esaten denak ere garrantzia izan beharko luke. Ondo lotutako esaldi batzuk ere eszitazio maila zertxobait altxa dezakete. Ondoren datozen dialogo "sakon" hauekin behintzat...

Egiptoko ejerzitoko koronel bat (gizonezkoa) eta teniente bat (emakumea) hitz egiten daude. "Derrepente" koronela tenientearen bularrak ikutzen hasten da. Tenientea izugarritzko plazerrezko keinuak egiten hasten da.

(Koronela) Neurri bikaina dute.. Perfektuak dira. Orain oso misio delikatuaren ardura eman behar dizut: nire artilleria pisutsuaz ardura zaitetz. (Tenientea felazio bat egiten hasten da) Hau plazerra. Ooooh, zoragarria!

(Tenientea) Ooooh, baaai, holaxe esan, koronela!

(K) Ooooh, baaai, zoragarria zara... ikutu nazazu, xurga nazazu, barru-barruraino (Tenientea mahai gainean etzan eta penetratu egiten du). Begira dezagun nola sartzen den.

(T) Hori da kañoia! Tiro egin ezazu koronela!

(K) Bai, bai, mugi zaitetz!

(T) Baaai, hori zakila duzuna nire koronela!

(K) Ejerzitoko onena! Begira nola sartzen dudana, barruraino. Hau kañoia!

(T) Hau bai zakila!

(K) Ala, ala, animalia bihurtzen naiz!

(T) Barrabilekin kolpa nazazu! Zure agindutara nago. Zu "kabalgatzea" gustatzen zait...

(K) Ez zaitetz gelditu... Gogora ezazu, dunen artean gaude.

(T) Inoiz montatu dudana gamelurik onena zara. Desertuko monsturoa zara. (Ipurditik penetratzen du) Ipurdia txikitu ezazu nire koronela!

(K) Hau plazerra!

(T) Dena zurea da, nire koronela.

(K) Batalloiko esamesak ulertzen ditut, dena ulertzen dut... Hau ipurdia, ene jainkoa!

(T) Ze ondo... bikaina, zoratu egiten nauzu!

(K) Lehen aurretik, orain atzetik!

(T) Alde denetatik atakatzen duzu.

(K) Berri-berri eginda utziko zaitut (20 segunduko aaaah eta mmmmm-en ondoren) Teniente, ezkon gaitezen.

(T) Baaaai!

(K) Ez dakit nola aguantatzen dudana hainbeste.

(T) Ooooh... enpalatua...

(K) Desertuko gamelurik onena!

Hauek benetako filme batetik ateratako dialogoak dira. Ridikuluak ezta? ■



Jesuskoa
Faletxea

Araua 86 17-39 • Uikia Zumaia

xirula

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

EGUZKI
PUB

KOKTEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

AHOLKULARITZA
IRURE

GESTORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel. 861485

English School
Harvest

Musika Eskolaren aurrean!

San Jose 11 bis Tel. 143334

Baleike etorkizunari begira

Berrikuntza haundi baten proposamena dakar Baleikek etorkizunari begira. Aurrerantzean, Gazte Batzordearekiko dugun lotura utzi eta, Euskara Elkarte baten menpe geratuko ginateke. Ze Euskara Elkarte ordea?

Honako hau ez da kontu berria. Baleikeren barruan berrikuntzaren beharra azaltzen duen eztabaida aspalditik dator. Batetik, aldizkariak dituen arazo ekonomikoak daude; eta bestetik lantaldearen funtzionamendu arazoak. Baina heldu diezaiogun bakoitzari berean.

Azaroaren 8an arratsaldeko 4retan Oxforden bilduko gara

Bada urtebete aldizkariaren itxura eta edukia aldatu eta hobetu nahian gabiltzala. Orain artean, hau ia ezinezkoa izan zaigu, gaur egun Baleike argitaratzeaz arduratzen garen lantaldea oso juxtu iristen garelako hileroko aldizkaria kaleratzera. Guztiok bestelako lanetan gabilta (lanean, ikasten etab.) eta ezin dugu aldizkaria kaleratzeak eskatzen digun konpromisoa behar bezala bete. Horretan Gazte Batzordeak ezin digu askorik lagundu, hauek ere larri-larri dabilta eta.

Bestetik, diru arazoak daude. Baleike defizitarioa dela gauza jakina da, eta dirulaguntzak eskatzerako orduan Gazte

Batzordearen argitalpen bat izateak arazo juridikoak sortzen dizkigu, gazte alorreko aldizkaritzat hartzen baikaituzte. Honek diru laguntzak ere murrizten dizkigu.

Guzti hau dela eta, Baleike osatzen dugun lantaldeak etorkizunari begira irtenbide bat planteatu dugu: Euskara bultzatuko duen elkarte haundi bat sortzea Zumaian, (Donostiako Bagera edo Arrasateko AEDren gisako talde bat), eta honek har dezala Baleike argitaratzearen ardura, herrian Euskara bultzatzeaz gain. Aldaketa honek, guri aldizkari bezala hainbat arazo konponduko lizkiguke, eta herrian

aspalditik zegoen hutsune bat beteko luke.

Ahalegin hau bultzatzeko, interesa duten guztien beharra dugu, eta dagoeneko hainbat talde eta herritarrekin hitz egin dugu honetaz. Guzti hauekin, eta euskararen alde lan egiteko gogoz zaudeten guztiokin bilera zabal bat egingo dugu datorren larunbatean, **hilaren 8an arratsaldeko 4retan Oxford aretoan**. Bertatik, Euskara Elkarte jaioko delakoan gaude, eta urtarrilean Baleike berri bat kaleratzeko esperantza dugu. Horretarako zure laguntza behar dugunez, anima zaitez. ■



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tel: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxe. 860169



ARRAIN ETA
MARISKOAK

BARAZKIAK

ETA

AURREZ

PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

Miguel Blanco eta Sonia Aragon irabazle

265 korrikalari iritsi ziren helmugara

Benetan arrakastatsua suertatu da aurtien lehen aldiz antolatutako Zakila Bira korrika lasterketa. Aurreikuspen guztiak apurtuz, 250 partaide baino gehiago izan genituen irteera puntuan, hauetatik 53 zumaiarrak.

Inork gutxi espero zuen eta are gutxiago antolatzaileek, Lehen Zakila Bira korrika lasterketa hau hain arrakastatsua gertatuko zenik.

Partaideak 250 baino gehiago (antolatzaileek 100 inguru espero zituzten), jende asko ibilbide osoan korrikalariak animatzen, eta partehartzaileak ere oso gustora gelditu ziren ibilbidearekin. Oso leku aproposa eta polita omen da beraien iritziz Zakila Bira honetako zirkuitua.

Gainera, irteera eta helmuga puntuak herri erdian bertan izateak ere asko lagundu zuen jendea karrera ikustera animatzerako orduan.

Lasterketari dagokionez, gizonezkoetan Miguel Blanco azpeitiarra izan genuen azkarrena 20 kilometroak osatzen. Lehen zumaiarra, gehienetan bezala Mariano Sanchez izan zen 6. postuan sailkatuz. Emakumezkoetan, Sonia Aragon gertatu zen garaile eta lehen zumaiarra aldiz, Elisa Agirrezabal.



Sailkapenak

Gizonezkoen sailkapena

1- Blanco, Miguel	1:07:47
2- Mendoza, Iñaki	1:07:56
3- Agirre, Gorka	1:08:29
4- Gonzalez, Juan Mari	1:08:54
5- Urdanpilleta, Asier	1:09:36
6- Sanchez, Mariano	1:09:38
7- Larrinaga, Joseba	1:09:45
8- Aranburu, Basilio	1:10:17
9- Alberdi, Juan	1:12:21
10- Ugarte, Luis Mari	1:12:35

Zumaiarrak

6- Sanchez, Mariano	1:09:38
13- Alvaro, Jesus Mari	1:13:10
14- Lopez, Juan Manuel	1:13:43

Javier Carballo suertatu da irabazle Zakila Bira honetako I. Argazki rallyan. Partaide gutxi eta maila eskasekoa izan da lehenengo edizio hau. Beheko hau duzue argazki irabazlea.



Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BISTADI-KUSTATEGUIA, 4A
ZUMARRA
TEL. 862081

STRATEGIA
URDATEGIA

ENTER INFORMATIKA
BALZAR DE ETXABE z/g
ZUMARRA

☎: 86.11.75
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOA
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTZOAK



21- Tamayo, Txetxu	1:15:33
42- Agirre, Felipe	1:19:27
46- Santamaria, Peio	1:20:01
47- Martinez, J. Ramón	1:20:03
49- Yeregi, Jon	1:20:07
50- Galarraga, Grazian	1:20:33
61- Sasiain, Jon	1:21:05
67- Aizpurua, Iñaki	1:22:05
73- Irureta, Xabier	1:22:23
76- Hidalgo, Jose Maria	1:22:34
80- Igual, Julian	1:22:53
84- Ibarguren, Jesus Mari	1:23:04
89- Ulazia, Jon	1:23:28
93- Alkorta, Juan Ignacio	1:23:45
99- Martin, Ricardo	1:24:24
105- Lopetegi, Jose Mari	1:25:10
107- Egiguren, Ramon	1:25:36



204- Azkue, Xabier	1:36:32
206- Moreno, Carlos	1:36:35
210- Gonzalez, Marcos	1:37:08
212- Iribar, Andoni	1:37:16
214- Aizpurua, Eñaut	1:37:53
220- Otaño, Ramon	1:39:26
221- Jimenez, Teodoro	1:39:27
226- Alzibar, Xabier	1:40:17
229- Etxabe, Pedro	1:40:51
245- Landa, Jose Ignacio	1:44:05
248- Ostolaza, Iñaki	1:45:11
250- Balenziaga, Karlos	1:45:46
253- Rivas, Ramon	1:48:20
261- Martin, Jesus Mari	1:55:19
262- Seguro, Gari	1:55:19

Emakumezkoen sailkapena

108- Yeregi, Mikel	1:25:37
114- Iribar, Joseba	1:26:03
116- Prieto, Florencio	1:26:28
132- Ureta, Xabier	1:27:56
139- Del Pilar, Karlos	1:28:24
144- Zumeaga, J. Agustin	1:28:34
151- Telleria, Javier	1:29:05
164- Florez, Julian	1:30:16
165- Aizpurua, Jose Luis	1:30:23
166- Santamaria, Martxelo	1:30:27
168- Gorritiberea, Alberto	1:30:52
171- Esnal, Jose Andres	1:31:35
187- Caporossi, Bernard	1:33:49
193- Osa, Luis	1:34:22
203- Gajate, Fernando	1:36:31

1- Aragon, Sonia	1:24:13
2- Butler, Jennie	1:26:28
3- Arriola, Maria Pilar	1:31:58
4- Pacheco, Pilar	1:32:06
5- Zeberio, Onintza	1:34:56
6- Salaberria, Begoña	1:36:13
7- Iriarte, M. Carmen	1:36:40
8- Gil, Maria Jose	1:36:42
9- Estefania, Esther	1:37:48
10- Plazaola, M ^a Jesus	1:42:24

Zumaiarrak

15- Agirrezabal, Elisa	1:59:38
16- Prol, Rosa	2:01:40
17- Aseginolaza, Ines	2:10:13



Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA


ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak
etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga 1, behea
Tel.-Faxa: 143402

Tailerra: Estazioko kalea 24
Tel. mugikorra: 908-143409

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

AZKUE

Taberna-Jatetxea

Eguneko menua Oheak

Basadi 9 Tel.: 861780



Hamalau taldek dihardute plaierotako txapelketan

Urriaren 18an eman zitzaion hasiera aurtengo plaierotako txapelketari. Guztira, 17 talde apuntatu dira, 14 zumaiaarak eta 3 kanpokoak: bat azkoitiarra, bestea zestoarra eta azkena Arroakoa.

Talde guztiak bi multzotan banatu dira. Lehenengoan honako hauek ditugu: Bastarrikalde (Azkoitia), Basusta, Gesem, Kabi-Genelek, Siete Mares, Pub Eguzki eta Ipurbeltz-Gaztañaga (Zestoarrak).

Bigarren multzoan berriz, Ekin Buitraker, Inpernupe, Txakur Amorratuak (Arroa Behea), Hiru Ezkur, Axier Kirolak, Mendi-Ondo eta Txikixa.

Dagoeneko lehen jardunaldiak



jokatu dira eta oraindik goiz xamar den arren, poliki-poliki talde indartsuenak zeintzuk diren agerian jartzen ari da.

Nobedadeak

Aurtengo txapelketa honetan, nobedade bat edo beste badago:

partidu guztietan sareak ezarriko dira porterietan. Aipatu gainera, C. Landeta iazko talde txapelduna, ez dela oraingo honetan apuntatu.

Multzo bakoitzeko lehen hiru taldeek Ligarako txartela lortuko duten bitartean, gainontzekoak Kopan arituko dira.

Txitxarro igoera-jeitsiera



Jose Ramón Uriarte Banesto taldeko txirrindularia izan genuen irabazle Txitxarroko Igoera-Jeitsiera proban. ONCE etxeko Alberto Leanizbarrutiak baino segundo bat gutxiago behar izan zuen.

Festa izugarria bizi izan zen Zumaian, baina handiagoa gauean Txitxarro disko-terekin. Dena den datorren urterako antolaketa aldetik gauzak pixka bat hobeto egitea ondo legoke.

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

Zozketan sarituak:
M^a Jose Salaberria
Maitane Vicente



ANTZERKI EMANALDIA

Azaroaren 28an
Aita Mari zineman

Sobradun taldearen eskutik

30 millones de gilipollas



ipuin kontaketak

Azaroaren 20an eta

Abenduaren 18an

10-12 arteko

haurrentzat

Haurren liburutegian

arratsaldeko 6etan

ikastaroak Forondan

kontrol mentala

larunbatez 10etan

Hilabete honetan

txanda berria

Argazki ikastaroak

Azaroan zehar

Pintura tailerra

Maiatza bitartean

erakusketak

Itsasoko pitxiak

Foronda Kultur etxean
Azaroan zehar.

Diapositiba emanaldia

Azaroaren 7an

Foronda Kultur etxean

Jose Ramon Agirreren eskutik

"Itsasoari begira"

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Telf:
860569



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

musika



Azaroaren 7tik 9rako asteburuan
ANGEL DE EMBILI omenaldia
 Pola de Sieroko abesbatzarekin topaketa.
 Kontzertua
 Azaroak 8, larunbatez

Azaroaren 15ean
 Maria eta Jose aretoan
 arratsaldeko 7,30etan
Santa Zezilia kontzertua
 Udal Musika Banda eta
 Parrokiko San Pedro Abesbatzaren
 eskutik

Azaroaren 29an
 Maria eta Jose aretoan
Zumaia eta Debako banden topaketa

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Euskaraz

Haur korapiloak *Patxi Zabaleta*
 Katalina Erauso *Patxi Iturregi*
 Gipuzkoako bertsolari txapelketa 95
 Tu quoque fili *Antton Luku "Eskola"*
 Hau artea bada... I eta II *A. Alonso-I. Arzoz*



Gaztelera

La cabeza perdida de
 Damasceno Monteiro *Antonio Tabucchi*
 Seda *Alessandro Baricco*
 El lector *Bernhard Schlink*
 En el Gallo de Hierro *Paul Theroux*
 Muerte accidental de un anarquista *Dario Fo*



Haurrak/Gaztetxoak

Gutun harrigarri bat *P. Zubizarreta-J. Mitxelena*
 Joxeme Ezkirol *X. Mendiguren-J. Zabaleta*
 Manolito Gafotas *Elvira Lindo*
 Miro eta Mara *I. Zubeldia-J. Ormazabal*



ERROTA

OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA



**JUSTA
 TABERNA**
 EGUNEROKO
 BAZKARIAK

Erribera kalea 20



HAUR JANTZIAK
 Amaia plaza, z/g
 Telef. 860959
 ZUMAIA



HARATEGIA
 URDAITEGIA
 Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
 20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430



Bonifazio Etxegarai plazarxoa z/g
 Telefonoa: 861322

ZINE FORUM

udazkeneko zikloa

azaroaren 20an EL SECRETO DE LA ISLA DE LAS FOCAS (1995)

Zuz: John Sayles
Akt: Jeni Courtney, Mick Lally



Orain dela 3-4 urte inguru Donostiako zinemaldiak John Sayles zuzendari iparramerikar independentearen retrospektiba bat egin zuenetik, zuzendariak gain idazle eta gidoigilea den honek ondoren egin dituen filme denak ikusteko aukera izan dugu (ez Zumaian, noski). Hilabete honetan ikusgai izango den pelikula ez da bere azken lana, ondoren "Lone Star" eta "Hombres armados" izugarria egin baititu (azken honek urte honetako Zinemaldiako irabazle garbia izatea merezi zuena).

John Sayles haundiak "El secreto de la isla de las focas" filmean Irlanda mendebaldeko kostaldeko kondairak, ipuinak eta zelta mitologia hartu -erdi gizaki erdi foka diren *selkien* mito polita barne- eta magia eta fantasiaz beteriko filme zoragarri eta miresgarria egiten du.

Filme honetan dena da bikaina, musika zelta, fotografia, guretzat guztiz ezezagunak diren Irlandako aktore bikain horiek, dena. Baina denaren gainetik zuzendari izugarri honen pertsonalitatea dago; 90eko hamarkadako zine *tradizionala* (biolentzia, zinismoa eta efeko espezialak) pikutara bidali eta gizakia eta sustraia bere zinearen erdian jartzen dituen artista, agian oraintxe bertan Estatu Batuetan dagoen zuzendaririk fidagarriena. John Saylesen filmeak bitan banatu daitezke: onak eta bikainak. Hau dudarik gabe bikaina da, maisu-lan bat.

Oharra: filme hau jatorrizko bertsioan eta azp tituluekin eskainiko da.


abenduaren 4an KANSAS CITY (1996)

Zuz: Robert Altman
Akt: Jennifer Jason Leigh,
Miranda Richardson, Harry
Belafonte, Dermot Mulroney

Blondie O'Hara (J.J. Leigh) Carolyn Stantonen (M. Richardson) etxean sartu eta droga bat ematen dio ondoren bahitzeko asmoarekin. Bahiketa honekin Carolynen senarra, Kansas Cityko politikari garrantzitsu bat, Blondieren senarra non dagoen jakitera behartu nahi du, senarra gaizkile arrunt bat, hiriko kapoak (Harry Belafonte) bahituta baitago. 24 ordutan zehar, Blondie bere senarraren bila ibiliko da Kansas hirian zehar bahitutako emakumeaz lagunduta.

"Kansas City" orain arte Robert Altmanek egin duen azken filmea da. Agian jende askok ez du jakingo, baina esan beharra dago Robert Altman amerikar zinemako zuzendaririk garrantzitsuenetakoa dela. Altman 50eko hamarkadaren amaieran sartu zen zine munduan beste hainbat zuzendarirekin batera (Sidney Lumet, Arthur Penn...) Hollywooden aire freskoa sartuz. Beti ere ikuspuntu ezberdin bat izan du amerikar honek, eta ikuspuntu hori filme honetan ere somatu daiteke "Kansas City" ez baita gangsterren filme bat soilik, tartean Kansas hiriko jazz klubetan biratxo bat eman eta garai hartan mitikoa bihurtu zen jam session baten berri ematen digu: 30eko hamarkadako jazz musikaririk onenak Kansas Cityko klub batean izan ziren gau oso batean inprobisatzen.

"Kansas City", 90eko hamarkadan errebalorizatu egin den zuzendari ironiko eta korrosibo baten azken lana da, agian ez bere maisu-lana den "Short Cuts" bezain *geniala*, baina bai bikaina. Merezi duena.



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

GURE TXOKOA TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Urtezahar gau honetan beteko dira 13 urte Ahuntzaren Gauerdiko Eztulak bere lehen kontzertua eman zuela. Urte hauetan gauzak dexente aldatu dira. Iraganaz, orainaldiaz eta etorkizunaz hitzegin dugu Joseba eta Mikel Aizpurua eta Iñaki Odriozolarekin

A.G. baietz!!

Noiz eta nola hasi zineten?

(J) Hasierako kontzertua karkaxa izenarekin eman genuen 1984ko urtezahar gauean. Kontzertua Bibaspañan izan zen eta esan daiteke benetan desastre bat izan zela. Hasi ginenean lau lagun ginan eta nahiko izen punkiarekin hasi ginen. Hala ere taldearen izenak ez zuen zerikusi haundiegirik egiten genuen musikarekin.

Hasi zinetenean ba al zen beste talderik Zumaian?

(J) Harrikozkorrak zeuden, gero K-txaperoak izenarekin jarraitu zutenak. Hauek Antxon Elosua, Inazio Tolosa, Manu Aizpurua, Alfonso Iraundegi eta beste batzuk ziren.

Nola okurritu zitzaizuen talde batean hastea?

(J) Tipikoa, gitarra bat erregalatzen dizue eta ea, musika egitera. Kepak, anaiak, bateria hartu zuen, eta taldea sortu genuen. Gauza hoiek pentsatu gabe ateratzen dira. Herriko auzoetan jotzen genuen. Euskararen aldeko jaialdia eta A.G.E.k jotzen zuen. Jarraiko jaialdia frontoi txikian eta A.G.E. Ekologistak, beno gu ekologisten barruan geuden, eta A.G.E. Hasi ginenean, ez genuen ez ekiporik ez autorik. Entsaio bat egin behar eta anplifikadorea eta autoa eskatzen ibili behar genuen. Gure hasieran ez genuen baxurik eta Buruk jotzen zuen gurekin. Kontzertuetan ze nota jo behar zituen esaten genion eta



Hiru ahuntz, txakur musikala eta kolaboratzaile bat

horrela ateratzen zen. Kantuen bukaera batzuk ere ez genekizkien.

Zuen kanturik arrakastatsuen "Trena badoa" da. Ba al du zerikusirik Urola trenarekin.

(J) Guk Urola trenarengatik ez genuen kanta hori egin. Kanta berak esaten du zertaz doan; barruan lagun bat doa, trena joaten da, baina joaten dena laguna da.

(I) Kantua Urola trena kendu baino 2-3 urte lehenagokoa da.

(J) Kanta amoldatu egin genuen. "Trena badoa" atera zenean Urola trena ondo zebilen.

(I) Bideo bat egin nuen eskolarako. Gu trenera joaten ginen eta bertan despeditu. Gero tartean manifestaldiko irudiak, Bertilek ateratako argazkiak sartu genituen, eta dena nahastu zen.

Urte hauetan zehar, zenbat grabazio egin dituzue?

(J) Ofiziala bakarra, maketa. Gero zuzeneko batzuk grabatuak ditugu, mahaiko soinua beti ere grabatzea baitago. Zuzeneko bat ere salgai jarri genuen jendeak eskatu egiten zigun eta. Hori bai, esaten den bezala, "precio de amigokin" atera genuen.

(I) Zinta 300 peztan jarri genuen salgai, eta kasete bera kostatzen dena, fotokopiak, kopiak ateratzea... diru dena joaten zen.

(J) Ofiziala bakarra atera dugu, gero "piratak", ba pila bat. Maketaren diruarekin txaleta erosteko haina atera genuen.

(I) Eta kamixetarekin...
Garai hartan, Taosan ere jo zenuten. Zer moduzko giroa egoten zen?

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6
Tel. 861078 ZUMAIA

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

(J) Taosa, "el centro del mundo" zen.

(I) Lehen Taosa eta Talai-pe zeuden. Orain jatetxea dena lehen pub bat zen.

(J) Denok han bukatzen genuen. Gu baino jende dexente zaharragoa ibiltzen zen. Gu ginan bigarren belaunaldikoak. Han sartu eta jendea kubatak edaten ikusten genituen; gu, berriz, zerbeza eta gorria gasarekin edaten. Taosan sartu eta jende dena edariak eskeintzen hasten zen. Musika aldetik 60-70eko hamarkadetako musika jartzen zuten.

(I) Tartean musika salseroa eta garaikoa jartzen zuten; Mike Oldfield, Pretenders...

(J) Anekdotak bezala konta daiteke Errealak bigarren liga irabazi zuenean "jura de bandera" egon zela. Norbaitek Errealaren ikurriña bat jarri zuen eta gu kriston itxurarekin filan jarri eta bandera muxukatzen.

(M) Taosako beste gauza famatua mutilen komuna zen. "Hi, bijila, porru bat itea nitxiak eta". Garai hartan guardiazibilak, antidrogak dexente sartzen ziren, gainera uniformeak, trikornio eta guzti. "Hi gaur ez dituk etorri" eta han ateratzen zen jende dena komunetik eskuan porrua zuela.

Rock asteak ere antolatu dituzue.

(J) Bi rock aste antolatu genituen. Lehenengoan liburuak salgai jarri genituen, bideoak ikusgai egon ziren: Rory Gallagher, U2, Barricada, Sex Pistols... Police-en bideoa ikustera jende pila bat joan zen. Aurrekontu txikiarekin ezin zen gauza haundirik egin, baina ia aurrekonturik ez zegoenean... Dena dela, jendeak ez zuen erantzun. Aitzakia beti bezala Foronda urrutiegi dagoela zen. Hitzaldia ere antolatu genuen Iñaki Zarata eta Sergio Cruzado kazetariak hizlariak zirela. Guztira 4-5 pertsona azaldu ziren. Diario Vascon kritika



1986, ahuntzaren gauerdiko lehen eztulak.

azaldu zen: urte guztian txitak bezala eskatu eta artoa dagoenean jan ez.

Nola aldatu dira gauzak hasi zinetenetik?

(J) Gizondue ere egin gaituk eta!! Gauzak aldatuz joan diren moduan gu ere aldatu egin gera. Dena elkarrekin doa. Belaunalditik belaunaldira kriston aldaketa dagoela ematen du, baina egia esan... Telebistak ere asko jotzen du hemen. Gizarte yankiak jan egin gaitu.

(I) Lehen porrua erretzen zenun, zerbeza edan, musika entzun, bakoitzak bere filosofia zuen. Heavya, punkia edo edozer gauza zinen. Orain jendea ikusten dezu eta, zer nahi dute hauek, kriston aparatua duen kotxea eta bakallaua topera jarri eta beste dena pikutara. Orain jendea konformistagoa da. Beti egon da konformismo hori, baina orain gehiago dago. Orain ez dago ez punkirik, ez heavyrik... Musika aldetik, oraingo musika, bakallaua eta, niretzat droga kantuak dira. Lehen,

musika psikodelikoarekin, LSDa sartzen zenuen eta musika arraroak entzuten zenituen: Pink Floyden lehen diska, Iron Butterfly, hegazkinen zaratak. Orain bakallauarekin antzera gertatzen da.

Pionerotzat jotzen al duzue zuen burua?

(J) Ez.

(I) Agian fama eta reperkusio gehiena izan degunak gera, baina aurretik beste taldeak egon dira. Baze-goen talde bat Zumaian 1965 urtean edo, ez dut hauen izena gogoratzen, diskoa grabatzeko aukera izan zutenak, baina ikasketak zirela eta ezetz esan zioten. Hasi ginenean A.G.E.taz aparte beste 2-3 talde zeuden Zumaian.

Zein dira zuen influentziak?

(J) Guk Sanmielko apaizaren influentzia eduki genuen!!

(I) Lehengoko musika.

(J) Led Zeppelin, Lynyrd Skynyrd, 60 eta 70etako kanpoko taldeak.



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

(I) Estatukoak Leño, Los Suaves, Barricada...

Orain kanta berri asko jotzen dituzue.

(J) Eboluzio bat egon da. Lehen bi gitarrekin jotzen genuen, orain bakarrarekin.

(I) Gauza berriak jo behar dira, ezin da beti berdina jotzen egon.

(J) Lehen jotako kantuak zaharrak dira, 1987koak, eta orain dela gutxi arte jo ditugu. Kanta berriak atera behar zirela eta, zer egin behar genuen, "Trena badoa"ren hurrengo pausoa? Hori oso atzean geratu da, gu aurrera joan gera. Orain taldean hiru garenez, gitarra bakarrarekin, erritmoak gogortu egin ditugu. Jendearentzat, agian oso poperoak izango gera, baina "Trena badoa"tik asko gogortu gera.

Kontzertu batzuk ematea da gure helburua, "mundillo" horretan ibiltzea.

Beti egon zarete mugimendu ekologistaren barruan. Kirol portuari buruz zerbait esateko izango duzue.

(I) Haundiegia izango dela.

(J) Faraonikoa.

(I) Hemen dagoen arriskua kirol portua hutsa geratzea da, plazak ezin saldurik, eta gero herriko jendeari enbarkazio txikiak hor sartzera behartzea. Kirol portua egin nahi badute, txikia egin dezatela eta behar bada gero haunditu. Hauek ahal duten haundiena egin nahi dute, Zumaian behingoz dirua uzten duten aitzakiarekin.

(J) Beti esan da padura horrek interes ekologikoa duela, baina azken finean ikusten da hemen zerk duen indarra, diruak.

(I) Esaten duguna esaten dugula ere, azkenean badakigu egin egingo dutela. Jaurilaritzak nahi duena Euskadi turistiko bat egitea da. Hurrengo pausoa Sanmielko mendian lujozko etxeak egitea izango da. Portuan yatea aparkatu eta Sanmielera etxera...

Noizko maketa berria?

(J) Maketa grabatzeko asmoa badugu, ze, ze taldek ez du maketa bat grabatzeko asmorik. Guk kantuak egin eta hoiek ondo grabatu nahi ditugu. Gero maketa hori zabaldu egin behar da, disketxetara bidali, etab. Guk gurea atera genuenean Zumaia talde bakarra ginan eta horregatik herrirako egin genuela esan daiteke. Egia esan asko ere ez ginen mugitu. Disketxe batzutara bidali genuen, taberna batzutara...

(I) Irratietara, eta zertarako? zeinek jartzen zuen maketa Egin Irratiaz aparte?

Hainbat urtetan jotzen, ez al zarete aspertu?

(J) Guk lasai hartu degu gauza.

(I) Guretzat hobbie bat bezela da.

(J) Musika oso barruan sartuta degu. Guretzat musika dena da, gure bizimodua, gure kultura. Oraindik ikasten ari gera. Kontzertu batzuk ematea da gure helburua, "mundillo" horretan ibiltzea. Gu gure soinuarekin oso leialak gara. Musika mota hori ez da orain asko saltzen, baina horrek ez du esan nahi horregatik modazko musika jotzen hasiko garenik. Soinu hori gurea dugu... Askotan pentsatu dugu: disko bat grabatu, arrakasta izan... baina gero arrakasta duten talde hoiek nola dabiltzan ikusten dezu eta nahiago degu gauden tokian jarraitu.

Suzedidoak

Behin Donostiako Bukowski tabernan jo genuen. Haiek 10etako soinua kendu behar dute. Egun hartan Eurokopako finala zegoen Dinamarka eta Alemaniaren artean. Eskenatokiko gainean kristoren telebista zegoen. 9tan partidua amaitu gabe zegoen eta bertakoek jotzen hasteko esan ziguten. Jotzen hasi eta jende dena telebistari begira. Partidua amaitu zenean jende erdiak baino gehiagok alde egin zuen.

ETBra grabatzera joan ginenean, sartu eta benga, makillatzera. Sartu eta kriston neskak gu makillatzeko. Lau ordu egon ginan makillajearekin. Emakume bat hurreratu eta esan zigun "zerbait nahi baduzue eskatu azafatari". Denbora pila bat egon ondoren grabatzera sartu ginen. Beraiek maketarik ez zutela eta soinua grabatu behar omen genuen "Ikimiliklip" saiorako. Guk ez genekien hori eta haiek hasteko esan zigutenean, gu zuzeneko zelakoan geuden. Han hasi ginen buruak astintzen, saltoka, kristoren kontzertua ematen. Kanta bukatu genuen eta "Benga ederki zio, orain zuzeneko egin ezazue". Eta zuzenekoan, gu geldidugan. 4.30etan sartu ginen ETBn eta 10.30etan grabatu genuen.

ONCE

JOXE
MANUEL

Orain kupoi berriak.
Ostiralero...

250 milioi

Tel: 862347-861001



ilargi
kontzertuz eta musikaz blai

ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324

Jon Maia txapelketan aurrera



Aspalditik zuen
Jonek
Txapelketan
horrelako saio
bat egiteko
gogo, eta baita
beharra ere.

Bertsolari gazte zumaiaarrak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko hurrengo fasera sailkatzea lortu zuen, hilaren 2an Zarautzen jokaturako kanporaketan. Saio borobila egin zuen Jonek eta azken puntuaketa bigarren postua eskuratu zuen, Jokin Sorozabalen atzetik, baina bi puntuko aldearekin bakarrik. Hasierako ariketetan ondo aritu zen, baina batez ere saioaren 2. zatian nabarmendu zen: azken oina emanda, hamarreko txikian eta kartzelako gaian, hain zuzen ere.

Mila lagunetik gora bildu Zarauzko Kiroldegian, eta orain arteko saiorik onenaz gozatu ahal izan zuten. Jokin Sorozabal (733 puntu) eta Jon Maia (731) herrikidearen atzetik Jesus Mari Irazu (719), Aitor Sarriegi (707,5), Jose Luis Urdangarin (689) eta Bittor Elizagoien (674) sailkatu ziren.

Honako hau da azken oina emanda (IZARRA) Jonek abestu zuen bertsoa:

*Kuban argiro ikus liteke
iraultzak duen indarra
bada gizon bat bihotz zabala
borrokarako azkarra
Che Guevararen eredu dut
hemen aipatu beharra
munduko izar haundina baita
bost puntutako IZARRA*

Finalaurrekotara 18 bertsolari pasa dira eta 6na bertsolariako 3 saiotan erabakiko da zein diren finalerako sailkatuko diren 8 onenak. Maiak Berako pilotalekuan abestuko du, hilaren 16an arratsaldeko 5etan, Egaña, Lujanbio, Zelaia, Loidisaletxe eta Iturriagarekin batera. Zorionak Joni eta ea saio txukun bat egiteko modua duen!

Imanol Azkue berriz ere saritua

Duela gutxi Ondarroa eta Ermuan beste sari batzuk lortu ondoren, oraingo honetan Lasarte-Oriako XI. Literatur Lehiaketan 1. saria eskuratu du Imanol Azkuek, ipuinen atalean hain zuzen. Idazle ezagunez osatutako epaimahai baten iritziz «Udaberria loratu zaizu, Silvie» izan da lanik onena, eta ondorioz Imanolek 110.000 pezetako saria jasoko du hil honen 29an egingo den ekitaldi batean. Aipatu beharra dago sari bakarra egon dela atal bakoitzean eta poesiaren arloan Xabier Aldai azpeitiar gaztea izan dela irabazle.



Julene Azpeitia ipuin lehiaketako zumaia onenaren sariaz gain Imanolek irabazi dituen sariak kontuan hartuta idazle «kategoria» lortuta duela dirudi eta beharbada hurrengo pausoa lan luzeagoren bat idaztea izan liteke. Animo eta ea laster zerbait argitaratzen digun!



ADI!! Datozen bi hilabeteetan zenbaki bereziak aterako ditugu:

- Abendukoarekin batera Zumaiako Historiari buruzko liburuska bat banatuko dugu
- Urtarrilean Baleike berriarekin batera URTEKARIA ere banatuko dugu

Hau dela eta hurrengo bi zenbakietan ale bakoitza 200 pezetan jarriko dugu salgai



*Motxian
hi!*

Zein: Moises Egaña
Zer: Taberneroa
Nola: Mois

-ZER PRESTATUKO ZENIOKE NESKA BATI AFALTZEKO?

NEI GUSTATZEN ZAITEN ZEOZE.

-AMETS BAT?

BESTE MUNDU BATIAN BIZITZIA.

-NORA JOANGO ZINATEKE BIDAIAU EZKERO? URRUTIRA.

-BARRA ALA SUKALDEA?

EZ BARRA EZ SUKALDIA.

-LIBURU BAT?

LOS PILARES DE LA TIERRA.

-ZUMAIKO TXOKO BAT.

TXOKO ASKO DABEZ ZUMAIAN, 10 BAINO GEHIO.

-ZE INSTRUMENTU GUSTATUKO LITZAIZUKE JOTZEA?

DANAK, DABEZEN DANAK.

-ZER EGINGO ZENUKE OHE BOROBIL BATEAN? IN LEIKEN EDOZER GAUZA,

-ZER EGINGO ZENUKE MILIOI BATEKIN?

GASTATU, BAINA EZ BAKARRIKAN.

-PARRANDA BATEN ONDOREN ZER?

BESTE PARRANDA BAT ETA HORREN ONDOREN BESTE BI.

-ZE FESTAK DITUZU NAHIAGO?

ANTOLATU GABEKUAK.

-GIZAKIAREN LAGUN ONENA?

BERE ETSAI HAUNDIENA DA.

OHARRAK

"Gomexak" taldekooi tuba lapurtu digute. Inork horren berririk izanez gero, edo guri uzteko moduko tuba bat baldin badauka, deitu 862400 telefonora.

SALDU/EROSI

Macintosh Powerbook 145B ordenagailu portatila (+ teklatu eransgarria) salgai: 80.000 pta.
Style Writer II inprimagailua ere salgai: 15.000 pta.
Deitu 861224 telefonora.

AGURRAK

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

Odon eta Nagore: Zorionak

**Bidali mezuak,
mekauenlaetxe!!!
mekauenlamar!!!**

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

BIZKOR
FOTOKOPIAK



Basadi 1-1, beheko - Tlf: 145120



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

- ALBAITARIAK -

LARRIALDIK

Basadi, 7 beheko
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

24 orduetan
Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-775508

KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



Lehiaketa Goxoa



Aurreko
hilabeteko
irabazlea
**NEKANE
AIZPURUA**
izan zen.
Zakila Bira
lasterketak

20 km zituela ederki asmatu
zuen.

Perurena harriekin
nagusi izango da, baina
gruak altxatzen
argazkiko honek ez du
konpetentziarik. Zein
den ba al dakizu?
Erantzuna asmatzen
duzuenon
artean TXAPARTEGI
GOZOTEGIAK emandako
tarta zoragarri bat zozketatuko
dugu. Parte hartzeko nahikoa
duzu erantzuna Txapartegin bertan
edota gure buzoian uztea urriaren
26a baino lehen. Zorte on!

